## (I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1- Ellande igan zena aise zuhaitzerat?
2- Non zagon Sorgin nagusia?
3- Zer ziren haren manuak edo aginduak. Nori agin-ziren.

# ARTZAINA ERREGE 2

Ellande sekulan gainerat orduko, izigarrizko haize batean, hor heldu dira sorginak sorginen gainean. Heien erdian, *Sorgin-Nagusia*, liburu handi bat galtzarpean. Ellande-Artzaina zagon arbolaren azpian gelditzen dire hain xuxen! Haren harritzea!

Sorgin guziek agur egiten diote berehala beren Nausiari. Jar-alki gorri gorri bat ekartzen diote, eta jartzen da Nausia. Denek musu emaiten diote liburuari, eta berehala hasi zen *Akhelarre* edo sorginen *Zaba*.

Bere manuen emaiten ari, hasten da beraz Sorgin-Nagusia:

«Zuek, Katero eta Hamala, holako eta halakoari, holako eta halako gaitza! —Zuek, Niñika eta Katalin, holako eta halako etxean holako eta halako jendea suntsi!»

Eta Katero, Hamala, Niñika eta Katalin joan ziren berehala, erkatz-gider' batzuen gainean, zoin bere alde.

Eta gero, bertze sorgineri galdegiten diote Nausiak, oihu batean:

«Eta zuek, egin ditutzea nik erranak?»

Eta guziek lurreraino agur eginez, ihardesten diote:

«Bai Nausia, egin ditugu denak.

—Ongi hola. Zoazte beraz orai, eta deskantsa zaizte zonbeit egunez.»

## (III) ADITZ IKASKUNTZA.

31. Ellande artzaina zagon 32. Egiten diote 33. Zoazte beraz 34. deskantsa zaizte

### 31. EGON. Indicatif

| Présent | | Imparfait | |
|---|---|---|---|
| Ni nago | : je reste | N. nindagon | : je restais |
| Hi hago | : tu restes | H. hindagon | : |
| Zu zaude | : vs restez | Z. zinauden | : |
| Hura dago | : il reste | H. zagon | : |
| Gu gaude | : ns restons | G. ginauden | : |
| Zuek zaudezte | : vs restez | Z. zinaudezten | : |
| Hek daude | : ils restent | H. zauden | : |

| Conditionnel Présent ou Futur | | Subjonctif Présent | | Imparfait |
|---|---|---|---|---|
| Ni nindagoke | = je resterais | N. nagon | : q. j. reste | nindagon = |
| Hi hindagoke | : tu resterais | H hagon | : q. t. restes | que je restas |
| Zu zinauzke | : vs resteriez | Z zauden | : q. v. reste | idem qu' |
| Hura lagoke | : il resterait | H. dagon | : | Imparfait de l'indicat. |
| Gu ginauzke | = ns resterions | G. gauden | : | Le conjonctif |
| Zuek zinauzkete | : vs resteriez | Z. zaudezten | : | des v. forts |
| Hek lauzke | : ils resteraient | H. dauden | : etc. | est parfois employ. |

avec une valeur de subjonctif Ex: dagon ala doan, zer zaiku : qu'il reste ou qu'il s'en aille qu'est-ce que cela nous fait? - On préfère en général avoir recours à la conjugaison périphrastique, où les distinctions entre subjonctif et conjonctif ordinaire mettent plus de clarté. Ex: Egon dadin ala joan dadin zer zaiku = qu'il reste ou qu'il s'en aille, qu'est-ce que cela nous fait?

### 32. UKAN - Conj. à dble cplt Indicatif Présent.

C.D.S. - Nik dut: je l'ai - Eni: à moi C.I.S

Zuk dautazu = vous me l'avez
Harek daut = il me l'a
Zuek dautazue = vous me l'avez
Heiek dautate = ils me l'ont

Zuri = à vous

Nik dauzut = je vous l'ai
Harek dauzu = il vous l'a
Guk dauzugu = ns vous l'avons
Heiek dauzute = ils vous l'ont

Hari = à lui

Nik diot = je le lui ai . Guk diogu = ns le lui avons
Zuk diozu = vs le lui avez ; Zuek diozue = vs le lui avez
Harek dio = il le lui a : Heiek diote = ils le lui ont